

«Home sweet home»

Maiden lantzi

Hegazkinetik jaitsi, eta begiekin jan ditugu txoko berri guztiak. Autoak gidaririk gabe doazela iruditzen zaigu, bolantea bertze aldean. Erreiak ere aldrebes. Telefono kabina gorriak, garai baten ondare. Taxi beltz borobilak eta bi pisuko autobusak etengabe joan-etorrian, etxe orratzen argitan. Eta jende aniztasuna, batez ere hori. Zerbeza bat hartuz mundua pasatzen ikusi dugu: gotikoak, punkak, trajedunak, sailkaezinak. Eta eskaleak, beren ondasun guztia aldean hartuta (kartoi kaxa batetik hainbat objektuz osatutako pila handira). Arraza, hizkuntza eta adin guztiak nahasian lorategietan. Baita pub kanpoaldeetan ere,

edalontziak eskuetan, orduetan eta ordue-tan han segitzen duten eta gero eta ozena-go eta gusturago kantatzen duten futbol-zaleekin batera. Hala, irudiz irudi, pausoz pauso deskubritu dugu hiri bizi bat. Eta ohartu gara kultur aberastasunaz, parte-katzen ditugun ohiturez eta ezberdintzen gaituztenez, eta gure herriaz eta kulturaz birpentsatu dugu. Ikuspegia zabaldu, eta hegazkinetik jais-tean begi berriekin jan ditugu txoko zahar guztiak. Ikasteko gogoia sentitzen dugu, hobetzekoa eta gauza desberdinak egite-koa. Aldi berean, etxera itzuli eta denak berdin segitzen duela jakiteak irribarrea piztu digu. *Home sweet home...*

...telebistak Madrilgo zahar-berriak eka-rrri dizkigun arte. Pailazo paper itzela egi-ten duten baina ofizioz politikariak diren pertsonaiek ika-mikan segitzen dute. Hauek ere aski ezagunak zaizkigu, baina horrek ez gaitu inondik ere pozten. Egune-ro sartzen zaizkigu etxean eta badirudi hi-rugarrenez deituko gaituztela bozkatzera... noiz eta abenduaren 25ean! Irudika deza-kegu egoera: jende pila bat, erabat nazka-tuta eta haserre, botoa eman gabe, eta ma-haian egotea tokatzen zaienak, agian urte osoan familiarekin Eguberrietan soilik el-kartzeko aukera dutenak, hautetsontziak zaintzen? Mundu arrotz honetatik jaitsi eta orduan bai... *home sweet home!* •

Eutanasia. Bizitzen eta hiltzen jakitea

Xabier Mikel
Errekondo

Ene bizitza bizi egin nahi dut. Ahal dela minutu bakoitza bizi, eta ez soilik biziraun. Bizitza kreditu bat da, bizitzeko aukera bat... eta bakarra. Milesker amatxo eta aitatxo (direnak direla bakoitzarenak). Merezi du bizitzeak; hanka sartu, estro-pezu egin eta ongi egindakoaren satisfazioa jaso, lotsaren eskola hautsi eta kanta-tu Ainhoa Arteta izan gabe edo dantzatu kubatarra ez izanik ere. Minutu bakoitza sentitu eta bere zapore gozo, garratz zein mingotsak dastatu, eta barruak ito aurretik kanporatu hurbilekoekin. Ez nau obse-sionatzen, baina errealitate kaskagorrrak dio amatxok erditu orduko ene denborak atzera kontua hasi zuela. Nago, ordea, nor-

berak edo maite dugun norbaitek gertaka-ri larriren bat izan arte ez garela jabetzen. Behintzat, horrela bizi izan nuen nik orain hamalau urte ene bikotekidea eta seme-alaba biak istripu batek larriki harrapatu zituenean. Pare pare ireki zizkidan be-giak, eta geroztik lastoa eta alea erraz ba-natzen dut. Prejuizioak zakarrontzira jau-rti, berritsuago, irekiago eta lotsagabeago bihurtu nintzen, nire estilora... Harrezkero hanka sartzea ez da kezka iturri, «sentitzen dut» esateko adorea ere nireganatu bainuen. Unerik zirraragarrie-na (sentimenduak, maitasuna, sexua...) nola xumeena intentsitaterik handienaz bizi ditut, irribarrerik, irudimenik eta ametsik gabe ez dakit bizitzen eta gustuko

uneak ez ditut eteten loaren izenean. Ho-rregatik guztiagatik, hain zuzen, eutanasia pasiboa zein aktiboa irmoki aldarrikatzen ditut. Gutxieneko baldintzarik gabe bizi-rautea ez da bizitzea. Akabo nahiago. Kitto esateko eskubidea pertsonala da, ez medi-kuena, eta legeak berme publikoa eskaini behar du. Tokitan gaude, ordea, Zigor Ko-dearen 143. artikuluekin! Aholkua, egin ezazu Aurretiazko Borondateen Doku-mentua (ABD). Zorionak eta milesker Arantxa Iraolari, abuztuaren azken egunetan “Berria”-n ar-gitaratu erreportajeengatik eta aspaldiko ezagunaren irribarrea bihotzeraino eka-rtzeagatik. Irakur itzazue, merezi du. Muxu handi bat Ibon Gaztanbide, @olagarro. •